

LAN BATZORDE IREKIAK**TALDEA****OBRA BATZORDEA****IRAUPENA****1.5 ordu****EGUNA****2019-06-04****GAIA****DEIALDIA****PARTE HARTZAILEAK**

Endika Igarzabal

Iñaki Etxezarreta

Iñaki Maiz

Xabier Barriola

LANDUTAKO GAIAK

GAIA	EKINTZAK	ARDURA DUNA	NOIZKO
BASERRIBIDEAK	<ul style="list-style-type: none">Bideen inbentarioari dagokionean, proiektua martxan jarrita dago ia.Orbeldiko bide zatiari soilik eman dio aldundiak diru-laguntza. Asfaltatuta dago ia. Ehizko zatiari momentuz ez die eman.Hirubide ondoko bidegurutzean ere konponketa txiki bat egin da, auzoko bizilagun guztiekin adostasun batera iritsita.		
MINATAKO BIDEA	<ul style="list-style-type: none">Minatako bidean egin beharreko konponketa gehienak egin dira (Gabiriako zatian). Hala ere, Mutiloako zatira datozenean beste konponketa txiki batzuk egiteko aprobetxatuko da.Guztira 1000m² asfaltatu dira eta orokorrean oso ongi geratu da.		
OSTATU	<ul style="list-style-type: none">Irisgarritasun sailetik 77.000€ko laguntza izango dugula jakinarazi digute.		
ALEGI AUZOA	<ul style="list-style-type: none">Auzora iristen den oinezkoen bidea erdigunera iristeko konponketa batzuk egin dira Gabiriako zatian.Autobus geltokia jartzea falta da eta uztailearen lehenengo astean jartzea da asmoa.		
ARAU SUBSIDIARIOAK	<ul style="list-style-type: none">Ez dago berririk.		
ARROAKO PROIEKTUA	<ul style="list-style-type: none">Udaleko arkitektoa aurkeztutako proposamenari eta batzordean ateratako ideiak lantzen ari da, beraz, proiektua bi zatitan banatuko da.Hasieran definitutako etxebizitza modeloari beste buelta batzuk ematen ari gara, herriari gehien komeni zaion		

	formula aurkitzeko.		
UR KONSORZIOA	<ul style="list-style-type: none"> • Hidrantearen inguruan ez daukagu erantzunik. • Agerre-Jauregi inguruan arazoa konpondu dela dirudi, tubo berria sartu ondoren. 		
IRIZAR	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrera doa, arazorik gabe. 		
GOI TENTSIOKO LINEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Gueñes-Itsasoko proiektua datorren hilabetean edo hasiko da. Zenbait bizilagunek baimena eman dute, eta eman ez dutenak abokatuekin hasiko dira lantzen. Hala ere, obra hasi egingo da bai edo bai. • Udalaren aldetik, herriarenak diren errepideen erabilera zaindu beharko da. Herritarrak abokatu talde batekin jarri dira harremanetan Udalaren bidez, laguntza modura. • Dicastillo-Itsaso proiektua ere martxan jarri dute, eta Udalaren aldetik alegazioak aurkeztu dira. 		
AZTIRI	<ul style="list-style-type: none"> • Taberna atzealdea zabor hontziak txukun geratzeko gunea amaituta dago. 		
ZUNTZ OPTIKOA	<ul style="list-style-type: none"> • Zuntz optikoa falta den herriko etxeetara iristeko proiektu bat prestatu dute, herriko hainbat etxeetan izan dira sare berria nola eraiki galdezka. • Epe laburrean egingo dute. 		
WIFI PUBLIKOA	<ul style="list-style-type: none"> • Diru-laguntza eskaera bat egin zen herri-gunean wifia publiko jartzeko, eta 15.000€ko laguntza jaso da. 		

Hurrengo bilera: definitu gabe